

BARNE GAZTELUAREN SARRERA

Frai Luis Leongoa izan zen Teresaren liburuak *dotoretasuna bera* direla esan zuena. Haren lumatik irten den guztia bixi preziatua bada, Barne Gaztelua preziatuetan preziatuena dela esan behar. Halaxe da espiritu fineko irakurleentzat, batez ere literatura klasikoa eta gai espiritualak maite dituztenentzat. Teresak berak ere, *Bizitza Liburua* eta *Barne Gaztelua* elkarren ondoan jarritz, hau hura baino urre finagoz eta esku trebeagoz ehoa dela esango digu.

Barne Gaztelua egilearen goi-mailako irakaspena da. Haren lurreko azken etapako fruitu heldua, haren bizitza espiritualaren bilakaeran behin betiko fasea, aurreko bi obren, *Bizitza Liburuaren* eta *Perfekzio bidearen*, mezua osatzera datorena. Hemen kontraera autobiografikoa estaliagoa da, anonimoagoa, eta bizitzako azken hamarkada ere hartzen du, baita *Bizitza Liburuak* hartzen ez dituen grazia mistikoak ere. Era berean, *Perfekzio bidean* darabilen irakasbidea gauditua geratzen da hemen, hau da, bizitza espiritualaren hasieran, trebatze aldiaren, nabari ziren duda-mudak, atzera-aurrera eta ilunaldiak atzean utziak dira, misterioaren barne-barnean murgiltzeko.

Fundazioak eta *Gutunak* etorriko dira, hurrenez hurren, irakaspena osatzera. Hemen egia hau berresten da: zazpigarren egoitzan kokaturik egoteak ez duela kristaua bere bideetik erauzten; mistikaren gailurreko bizipenak oinak lurrean dituela mantentzen duela eta lagun hurkoarekin elkarriketan.

Abiapuntua

Teresa bizi zela *Bizitza Liburua* Inkisizioak bahitu zuen 1575ean. Haren biografo eta adituek diotenez, Eboliko Prinzesaren mendekua izan zen bahitze hori, Teresak bere monasterioetan muturra sartzen utzi ez ziolako. Dena dela, Inkisizioak bahiturik izan zuen, autorea hil ondoren argitaratzea erabaki zen arte. Eskuizkribu originala eskuraturik, hura erabili zuen frai Luis Leongoak Salamancan obra hura argitaratzeko. 1588an izan zen hori.

Bien bitartean, gure Santa saminez zegoen, adituen iritziz eta baita beraren iritziz ere, gauza asko ongi adierazirik zeudelako liburu hartan. Han idatzirikoa oroimenera ekartzea, berriaz, ezinezkoa izango zitzaiolakoan, hura berregiteko ahalegina ustel irtengo zela uste zuen.

Bestalde, *Bizitza* idatzi zenez gero 12 urte igaro ziren eta aldi horretan grazia mistiko berriak eta goi-mailakoak izan zituen, *Bizitza Liburuan* idatzirik ez zeudenak. Urte haietan, gainera, arimako gertakari mistiko haiek ezin hobeki irakurtzen zekien maisu espiritual berdingabea izan zuen: San Joan Gurutzeko. Beraz, bere buruaren barne-miatze hartan ikuspegi zehatzago, sakonago eta osoagoa lortu zuen Teresak eta, horrela, sintesi teologiko egokiagoa egin ahal izateko eran izango da.

Horrela ikusiz, Inkisizioak bahiturik zuen liburu hark osatu beharra zuen, geroko esperientzia mistiko berriekin. Horren harian, honela idazten dio bere neba Lorenzo Cepedari 1577-01-17ko datatz:

“Bidal beza norbait gotzainarengana liburua eskatzera; izan ere, Jaunak gero eman didanarekin amaiera emateko gogoia piztuko zait, beharbada; Jaunak esaten asmatzea nahiko balu, beste bat eta handia egin daiteke; eta bestela, ez da ezer gal-tzen” (Gut. 177, 19)



Hasiera batean, asmo hori ez zen aurrera joan. Gotzainak ez zion eskuizkribu hura lortu. Eta gauzak oraindik gehiago okertzeko, lanaren lanez, Teresaren osasunak txarrera egin zuen. Zeharo nekaturik zen, trauma fisiko sakonaz. Min handiak zituen eta buruko zaratak; horrela, nahiko jota zegoen eta beldur zen ezertarako gauza ez zela geratuko ote zen. Guntunak idazteko orduan ere, berak ahotsez esan eta etxeke beste batek idatzi behar izaten zizkion, medikuak hala aginduta. Beraz, *Bizitza Liburua* osatzeko eta berregiteko asmoak bertan behera utzi behar, noraezean.

Barne Gaztelua idazteko agindua

Hala ere, 1577ko otsailaren 6 edo 7an hasita guztiz ezindua egon ondoren, maiatzaren amaierarantz, pixka bat suspertzen hasi zenean, Toledoko monasterioko mintzalekuan A. Graciánen bisita izan zuen. A. Gracián Probintziala zen une hartan. Honek idatzirik utzi zituen solasaldi hartako gauzatxo batzuk. Hona hemen neure erara euskaraz emanak:

Egoitzak liburuari dagokionez, ni haren Prelatua nintzela eta haren espirituaren gauza asko mintzagai genituela, esan zidan berak: Bai ongi idatzia dagoela puntu hori Inkisizioan dagoen nire Bizitza liburuan!

Nik esan nion: Bada, liburu hori eskuratzetik ez dugunez gero, saia zaitetz oroimenera ekartzen eta horrela bartaz gogora datorkizunaz eta beste gauza batzuez idatz ezazu beste liburu bat eta azaldu doktrina orokorra, esperientziak nori gertatu zitzaizkion aipatu gabe.

Eta Egoitzak liburu hau idatz zezala agindu nion; bartarako gogoia gebiago berotu nahirik, Velázquez jaunari ere horretaz kontsulta egiteko esan nion, batzuetan berarekin aitortzen baitzen. Eta bark ere idazteko agindu zion.

Hainbat urte geroago, Graciánek berak osatzen du solasaldi hartako berri ematea:

Ekin eta ekin egiten nion nik ama Teresari Toledon liburu hura, gero idatziko zuen Egoitzak deritzona, idatz zezan. Hark arrazoi berarekin, haren liburuetan askotan errepikatzen denarekin, erantzuten zidan beti.

–Zertarako nahi duzue nik idatz dezadan? Idatz dezatela letradunek, ikasi dutenek, ni ezjakin bat bainaiz eta ez baitut jakingo zer esaten dudan ere: hitz bat jarriko dut beste bat jarri beharrean eta horrela kalte egingo dut. Lehen ere nabikoa liburu daude otoitz gauzei buruz; Jainkoagatik, utz diezadatela

neure goruaz iruten eta neure koruko eta erlijioako zereginak betetzen, gainerako abizpei bezala, ni ez bainaiz idazteko, ezta ez baitut osasunik ez bururik horretarako, etab.

A. Graciánek eta Velázquez jaunak lortu zuten, azkenik, Ama Teresaren erresistentzia gainditzea, eta 1577ko ekainaren 2an, Toledon, *Barne Gaztelua* liburua idazteari ekin zion. Dena dela, hitzaurrean azpimarratzen du zein zail gertatu zitzaien kasu honetan “obedientzia” eta berriro adieraziko dituen erresistentzia horretarako zituen arrazoiak: buruko min handietatik hasita idazteko inspirazio gabezia nabarmeneraino. Honela agertzen du berak hori:

“Obedientziak agindutako gauzetatik gutxi gertatu zaizkit, otoitzeko gauzez orain idaztea bezain zail; alde batetik, uste dudalako Jaunak ez didala ematen hori egiteko espiritua ezta gogoa ere; bestetik, orain dela hiru hilabeterik hona burua hain burrundara eta ahulezia handiekin dut, non behar-beharrezko gauzetarako ere neke handiz idazten baitut. Hala ere, obedientziaren indarrak ezinezkoak diruditen gauzak erraztu egiten dituela kontuan izanik, borondateak egitera jotzen du oso gogo onez, berezko izaerak hartan neke handia hartzen duela dirudien arren” (Hitzaurrea, 1).

Jainkoaren laguntzan du uste ona eta, bera oroimen kaskarrekoa izanik, Jaunak gogoraziko dizkiola, uste du, hango (*Bizitza Liburuko*) gauza asko, adituen iritziz, ongi esanak zirenak; eta gaineratzen du, hala ez balitz, obedientziagatik nekeak hartzeak ez dakarrela inondik ere kalterik, mesedea baizik:

“Jaunak ezer berririk esatea nahi badu, Haren Maiestateak emango du edota niri oroimenera ekartzea nahiko du beste batzuetan esan dudana; hauxe ere nahikotzat izango nuke, hain oroimen kaskarra izanik, zorionsua nintzateke gauza batzuk, ziotenez ongi esanak zirenak, berriro esaten asmatuko banu, galduak balira ere badaezpada. Jaunak hau ere emango ez balit, obedientziagatik nekatuz eta nire buruko mina areago-

tuz, irabaziaz geratuko nintzateke, esan dezadanetik inork onuririk aterako ez balu ere” (Hitzaurrea, 2).

Galduak balira ere badaezpada hitz horietan, Inkisizioaren aipu erdi estalia dago.

Idazterakoan, aipaturiko bi aholkulari horien argibideei men egingo die:

“Eta honela, agindua betetzeari ekin diot gaur, Hirutasun txit Santuaren egunean, 1577. urtean, une honetan nagoen Toledoko Karmengo San Jose monasterio honetan; esan dezadan guztian idazteko agindu didaten haien iritziaren mende jartzen naiz, pertsona oso jakintsuak baitira. Erromako Eliza Katoliko santuak sinesten duenaz bat ez datorren gauzaren bat esango banu, nire ezjakintasunagatik litzateke eta ez maleziagatik. Hau gauza ziurtzat izan daiteke, eta beti nago eta egongo naiz eta izan naiz haren mende, Jainkoari eskerrak. Bedeinkatua eta goretsia izan bedi beti-betiko, amen” (Hitzaurrea, 3).

Norentzat den liburua

Ez du idatziko bi aholkulari haientzat, ezta aitor-entzuleentzat ere *Bizitza Liburua* idatzi zuenez, bere monasterioetako moja karmeldar oinutsentzat baizik. Hauek jende xumea ziren, Teresaren lumatik sorturiko guztia esker oneko begiez eta maitasunez hartuko zutenak:

“Idazteko agindu zidanak esan zidan, Karmengo gure Amaren monasterioetako moja hauek otoitzeko zalantza batzuk norbaitek argitu beharra dutela, eta uste duela emakumeek hobeki ulertzen dutela beste emakume batzuen hitz egiteko era, eta niri didaten maitasunaz egokiago etorriko zitzairela nik esan niezaiena; arrazoi honengatik, uste du, nolabaiteko garrantzia izan dezakeela, zerbait esaten asmatzen bada; eta horregatik, idaztean haiekin hitz eginez joango naiz, beste pertso-

na batzuei egoki etor dakiekeela pentsatzea zentzugabea delako” (Hitzaurrea, 4).



Goiko lerroetan ageri denez, *Barne Gaztelua* idazteko proiektua apala izan zen. Jainkoaren gauzei emanda zeuden karmeldar monasterioetako mojak izango ziren irakurleak, haiei otoitz-bideko zenbait zalantza argitzeko asmoz idazten du. Hasieran beste irakurlerik ez du aurreikusten: *beste pertsona batzuei egoki etor dakiekeela pentsatzea zentzugabea delako*. Dena dela, lortu zen emaitzak aurreikuspen guztiak

gaindituko ditu eta, aditu askoren iritziz, haren obra mistiko osoaren gailurra da. Gorago aipatu dugunez, haren lurreko azken aroko fruitu heldua dugu, autorearen behin betiko bilakabide espirituala agertuz batera, aurreko obrak, *Bizitza Liburua* eta *Perfekzio Bidea* osatzen dituen.

Nola izan zen idazte-egintza

Hitzaurrean ez du agertzen konfiantza handirik bere buruagan. Gero, hasierako duda-mudak alde batera utzirik, erraztasun handiaz idatziko du, aurrez berariazko eskemarik egin gabe berez-berez irteten zaiola dirudi. Hala ere, laugarren egoitzetara arte ia arnasa batean idatzi ondoren, barneesperientzien hotzikarak harturik, Espiritu Santuaren laguntza eskatzen du. Izan ere, naturaz gaindiko unean sartzen da arima laugarren egoitzaz gero, otoitz mistikoan, goi-graziazkoan. Gauza bera egiten du bosgarren egoitzen hasieran eta baita seigarren egoitzen hasieran ere. Zazpigarren eta azken egoitzetan ez du bere burua duin ikusten halako gauza gorenez aritzeko. Horregatik, lau kapitulu nahiko laburretan esatekoak esanik, isiltasunari egingo dio leku. Hona hemen beraren hitzak, hurrenez hurren, laugarren, bosgarren eta seigarren egoitzen hasieretan:

“Laugarren egoitzez hitz egiten hasteko oso beharrezkoa dut egin dudana, hau da, Espiritu Santuari neure burua gomenatzea eta hemendik aurrera nire ordezk hitz egin dezala eskatzea, geratzen dena zuek ulertzeko eran esan dezadan”. (Laugarren Egoitzak, kap. 1, 1).

“Oi ene ahizpak!, nola adierazi nik zuoi bosgarren egoitzetan gordetzen diren aberastasuna, altxorrak eta atseginak? Uste dut hobe litzatekeela ezer ez esatea geratzen diren ondorengoei buruz, bada, ezin da adierazi, eta adimenak ere ezin du ulertu, ezta konparazioek ere ez dute balio hori azaltzeko, lurreko gauzak kaskarregiak direlako xede honetarako.

Bidali, ene Jauna, zerutik argia, nik argi pixka bat egin diezaiedan zure mirabe hauei, haietako batzuek gozotasun haueztaz hain sarri gozatzea nahi izan duzunez gero, atzipetuak izan ez daitezen, deabruak argizko aingeru-itxurak harturik, haien gogo guztia Zuri poz ematen aritzea baita”. (Bosgarren Egoitzak, kap. 1, 1).

“Gatozen, bada, Espiritu Santuaren laguntzaz, seigarren egoitzei buruz hitz egitera; arima hemen Senarraganako maite-minez zauritua geratzen da eta bakarrik egoteko asti gehiago lortzen eta, bere biziera kontuan izanik, bakardade hau eragotz diezaiokeen guztia saihesten ahalegintzen da”. (Seigarren Egoitzak, kap. 1, 1).

Laugarren Egoitzetako lehenengo kapitulura arte, hau barne dela, ia arnasa batean idatzi ondoren, eten beharra izan zuen, zereginek eta osasun-arazoez ez baitzioten uzten idaketan aurrera egiten; berriro ekiten dionean hau idatziko du:

“Ene Jainkoa, zertan sartu naizen! Ahaztua nuen zertaz ari nintzen, eginbeharrek eta osasun-kontuek esku-artekoa hobereanean utzarazten didatelako; eta oroimen kaskarra dudanez gero, loturarik gabe joango da guztia, berriro irakurtzeko astirik hartu ezinagatik. Eta, beharbada, diodana ere nahaspila besterik ez da izango; hori da behintzat sentitzen dudana” (Barne Gazt., 4. Eg. 2, 1).

Etenaldi, bidaia eta izu-ikara artean, beste bost kapitulu idatzen ditu: 4. Egoitzetako 2.etik hasita 5. Egoitzetako 2. kapitulura arte, hau barne dela. Lau edo bost hilabete geroago ekingo zion berriro buru eta bihotz idazteari. Negu gorria zen. Ávilako San Josereneko gela hotzean idatziko du gainerako guztia, hasi eta amaitu, etenaldirik gabe. 113 folio handitan idatzi zuen autografoa. Xehetasunak falta ditu: barne-egitura egoitza, kapitulu eta zenbakietan eratzea. Izenburua ere gero ezarri zion. Honela dator:

“*Barne Gaztelua* deritzon tratatu hau Teresa Jesusenak, Karmengo gure Amareneko mojak, idatzi zuen bere ahizpa eta alaba Karmeldar oinutsentzat”.

Zentsore eta teologoak

Irakurleen eskuetan jarri aurretik, zentsore eta teologoek oniritzia izan beharko zuen. Santaren bi lagun izango dira legezko eginbehar hori beteko zutenak: A. Gracián karmeldar oinutsa eta A. Diego Yanguas domingotarra. A. Graciánek liburua babestearren, eginahalak egingo ditu oztopo-harri izan daitekeen oro baztertzen eta kentzen; beraz, ez dabil batera nagi zuzenketan eta teologiazko zorrozkerietan. A. Diego Yanguas, berriz, Segoviako unibertsitatean teologiako irakaslea da. Testu originala, zuzenketa eta urratu ugariak gorabehera, ongi irakurtzeko eran geratu zen. Urte batzuk geroago, autografoa Teresaren lehenengo biografoaren, Frantzisko Ribera jesulagunaren, esku gertatu zen. Hau, originalaren edukiaz eta for-



maz liluraturik, zentsoreen esku-sartze eta aldaketan aurka jaiki zen, “kontra-zentsura” antzekoa idatziz:

“Liburu honetan ezabatua dator hainbat aldiz Ama Teresak idatzi zuena, eta beste hainbat hitz gehituak ageri dira, edo azalpenak ertzetan jarriak. Eta gehienetan gaizki jokatu da ezabatzean, hasieran idatzi zen eran hobeki zegoelako. Esaldiaren harian hobeki zetorrela ikusiko da, eta Ama Teresak haren azalpena ematen duela gero, eta zuzendutakoa, kasu askotan, ez da ongi lotzen gero esaten denarekin; horregatik, saihestu beharrekoak ziren zuzenketak eta azalpenak. Eta irakurri dudalako eta arreta pixka batez begiratu dudalako, irakurtzen duenari abisu ematea iruditu zitzaidan: irakur dezala Ama Teresak idatzi zuen bezala, hark ulertzen eta hobeki esaten baitu, eta utz dezala alde batera gehiturikoa eta Santaren testutik ezabatua har dezala ezabatua ez balitz bezala, bere eskuz zuzendua eta ezabatua dena izan ezik, baina gutxi dira halakoak. Eta arren eskatzen diot liburu hau irakur dezanari, begirunea erakuts diezaiela esku santu hark idatzitako hitzei eta letrei eta saia dadila haiek ongi ulertzen, eta argi ikusiko du ez dagoela zertan zuzendurik, eta ulertzen ez bada ere, sinets dezala idatzi zuenak hobeki zekiela; ez dagoela behar bezala zuzentzerik, haien esanahia guztiz ulertzen ez bada; izan ere, *guztiz* ulertzen ez badira, ongi esanda dagoena gaizki esandakotzat hartuko da, eta horrela, liburuak hondatzen dira eta alferrik galtzen”.

Zorionez, Frantzisko Riberak ez eze, frai Luis Leongoak ere lehen argitaraldian ez die leku egingo A. Graciánen zuzenketei. Gainera, beste zentsore batek ere oso-osoko onarpena emango die obra honen azken orrialdeei. Rodrigo Álvarez jesulaguna da, Inkisizioko gizona, aurreko urteetan Teresaren aurka inkisizio-prozesua hastekotan izan zena (1575-1576). Orain haren mireslerik finenetakoa da. Sevillako ama priorea, Maria San Joserena, hartu zuen Teresak bitarteko, eta honek irakurri zizkion jesulagunari ahots ozenez 7. Egoitzetako lau kapituluak. Arretaz entzunik, autografoa bereganatu eta azken

egoitzaren ondoren, orrialde gogoangarri hau idatzi zuen, amaieran bere sinadura jarritz. Euskarara itzulita, honela dio:

“Sevillako komentu honetako ama prioreak irakurri zidan zazpigarren egoitza hau edo bizitza honetan espiritu bat iristen den bizilekua: gorets bezate santu guztiek Jainkoaren mugabeko errukia, beraren aintza handiaren eta lagun hurkoaren salbamenaren bila benetan ari direnekin hain sakonki komunikatzen baita. Irakurri zidan guztia jainkozko letren eta santuen doktrinen araberrako egia katolikoa dela sentitzen eta epaitzen dut. Santuen doktrina irakurri duenak, esaterako, santa Jertrudisen liburuan, santa Katalina Sienakoren idazlanetan, santa Brijidaren eta beste santuen lanetan eta liburu espiritualetan, argi ikusiko du ama Teresa Jesusenaren espiritu hau egi-egiazkoa dela, santuengan izan ziren ondorio berberak gertatzen baitira berarengan. Eta hau sentitzen eta uste dudala egia delako, neure izenaz sinatzen dut gaur, 1582ko otsailaren 22an. A. Rodrigo Álvarez”.

Zer kontatzen zaigun

Arimaren ibilbidea zehazten da, hau da, espiritua nola doan gorantz mailaz maila, Jauna bizi den azken egoitzara iritsi arte. Aurrez taxaturiko eskemarik ez zuela esan dugu gorago, baina esperientzia gidari dela, hasieratik sartzen da gaiaren muinean. Kontua da ez dituela errepikatu nahi aurreko liburuetan landuriko kontzeptu berberak, haiak osatu baizik. Horregatik, ibilbide honetan, begirada santutasunaren azken edo gorengo estadioetan jarria du. Beraz, laster batean jo nahi luke hara, sarrerako edo bizitza espiritualeko lehen urratsak atzean utziz. Horrela, laster batean eta hasierako bost kapitulutan azaltzen du aszetikari dagokion atal guztia, *Perfekzio bidea* ia osorik hartzen zuena, eta gainerako atala –22 kapitulu– gai nagusia mamitzeko gordetzen du: mistikarako sarrera (4. egoitzak), bat-egite eta santutzearen hasierak (5. egoitzak), maitasunaren su-labea (6. egoitzak), Kristoren

eta Trinitatearen misterioen esperientzian goren-gorenera iristea (7. egoitzak).

Azken hitzak

Ikusi dugu gogo txarrez ekin ziola Teresak lan honi, esana egitea inoiz baino zailago egin zitzaiola aitortzeraino. Amaieran, berriz, oso pozik geratuko da. Hona beraren hitzak:

“Hemen doan hau idazten hasi nintzenean, hasieran esaten dudan gogo txarrez izan bazen ere, amaitu dudanean egundoko poza eman dit eta ontzat ematen dut horretan izandako nekea, oso txikia izan dela aitortzen badut ere. (...) Uste dut pozgarri gertatuko zaizuela barne-gaztelu honetan atsegin hartzea, nagusien baimenik gabe sartzeko eta edozein ordutan bertan paseatzeko aukera baituzue” (Barne Gazt., Epilogo).

Aipamen honekin amaituko dugu. Gutun batetik hartua da. Gutun askotan hizkera estalia, metaforikoa, darabil eta egiazko izenak izenordeez disimulatzen ditu, garai arriskutsuak zirelako berarentzat eta karmeldarren erreformarentzat. Horrela, Gaspar Salazarri 1577ko abenduaren 7an idatzirik gutunean esaten dio *bitxi hura* (*Bizitza Liburua*) Inkisizioak bahiturik zuela eta Gaspar Quiroga Inkisidore Nagusiak estimu handitan izanik, nekez utziko zuela eskutik harik eta aspertu arte; baina Gaspar Salazarri diotso, orain hura baino bitxi preziatuagoa ikusiko lukeela, hara etorriko balitz. Bitxi preziatuago hau *Barne Gaztelua* da:

“Gauza ezaguna da beraren esku dagoela bitxi hura eta biziki goraiatzen duela, eta, beraz, hartaz aspertu arte ez duela emango, berak esan baitzuen berariaz begiratzen zuela. Carrillo jauna hona etorriko balitz, beste bitxi bat ikusiko luke –uste denez– alde handiaz bestea baino hobea; izan ere, ez da ari gauzei buruz, Bera de-

nari buruz baizik¹... eta esmalte eta eskulan finagoa du; izan ere, orduan egin zuen zilarginak ez zekiela hainbeste, dio, eta urrea kilate gehiagokoa dela, harribitxiak han bezain agerian ez badauzka ere. Beiragilearen aginduz egin zen, eta, diotenez, itxura onekoa da” (Gut. 219, 8).

Luis Baraiazarra Txertudi.

¹ Ez gauzei buruz, Jainkoari buruz baizik. *Barne Gazteluko* pertsonaia nagusia Jainkoa da.